

# LEOIA eta GIZONA

---

Zirkuan egon naz,  
abereen zirkutik nator,  
eta nor  
ez da gorrituko lotsaz  
nik ikusi dodanaz?

Zer ikusi dodan or?

Leoi bat,  
Afrikako baso-mendietako  
leoi arro, indartsua.  
An, Afrikan,  
bere lurrean,  
abere guztien Jauna,  
eta Errege zana,  
bere ule buru uletsua zutik  
guztien jabe eginik  
orroaka asten zanean  
inguruko atxak ere  
jartzen zituena, dardaran,  
ikaran...

Gaur, or, zirkuan ikusi dot ikusi,  
lotsagarri,  
leoi arro, indartsu a,  
neskatil, zirtzil baten  
zigor-latigopean, bai ikusi dot  
bildurturik, ikaturik,  
burua lurreraño makurturik,  
arantz-onantz,  
gora ta beera,  
neskatil txikin baten esanera...

Eta ikusleak begira,  
txaloka, barreka, adarra joka,  
basoko Erregeari,  
Afrikako leoi arro-putzari...

Eta leoia —negargarri—,  
begiak apal,  
atzaparrak makal,  
indarrak argal,  
buruko ule arro luzeak  
lurrerantza umil  
ezilariaren ankapean, leial...

... ..

Bai, mutil...  
Gure buruak ala ikusi baiño  
obe dogu 1111

Ori ikusi ondoren,  
zirkutik urten,  
eta zer dot ikusten?

Ludi osoaren errege ta jauna,  
abere ta piztien  
jabe ta nagusi  
izan bear leukena  
—GIZONA  
neuk dot ikusi  
burua galduta,  
adimena illunduta,  
mozkortuta  
arantza onantza  
kili-koloka...  
eta umeak inguruan barreka...

... ..

Noren antza?

Au ikusi eta  
pentsatzen nago:  
leioia ala gizona  
jausi da beerago?

GOIKOETXEA'tar Iñaki